

2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA:

Gure produktua bezero konkretu batera bideratuta dago. Gure bezeroak gazteak izango dira adintxikikoak zein adinagusikoak. Hau da, bezeroak 16 urtetik aurrera sartuko ahal izango dira. Diskoteka gehienetan, adinez nagusi diren lagunak dituzten 17 urtetik beherakoak diskoteka askotatik kanpo geratzen dira; beraz, ez dute dibertitzeko modurik. Gu, neurri batean, arazo hori konpontzera gatoz, eta horregatik 16 urtetik beherakoak baimenduta egongo dira diskotekan. Jakina, 16 urtetik beherakoek eta adinekoek eskumuturreko desberdinak izango dituzte.

Eskumuturrekoen kolorea desberdina izango da eta mota bakoitzak bere ezaugarriak izango ditu. Eskumuturreko berdea adingabearen eskumuturrekoa da; eskumuturreko horrekin ezingo da alkoholik erosi. Eskumuturreko gorria adinez nagusiaren eskumuturrekoa da, eta horrekin alkohola eros daiteke. Azkenik, urre koloreko eskumuturrekoa VIP eskumuturrekoa da. Eskumuturreko horrekin diskotekaren zati batera sar daiteke, terraza batera, zehazki. Bestalde, nahitaezkoa da NANA diskotekaren atean erakustea, NAN fisikoa. Edozein argazki edo NANaren fotokopia ez da onartuko.

Gazte hauek gehienbat nahi duten ondo pasatzea da; hauek gazteak baitira. Gazteak direnez festan joatea gustoko dute eta horretarako gure diskoteka aukera paregabea da bai ondo pasatzeko, bai lagunak egiteko..

Hortaz gain, gure diskotekara etortzen den jendea musikazaleak izango dira. Musika mota desberdinak gustoko dituen jendea elkartuko da han beraz, edozein motako jendea elkartuko da. Hau da, gure enpresa leku seguru bat da non berdina da Rotten zein Bad bunny entzun denok gauden festan. Bestalde, gure bezero posibleak durangaldeko gazteak izango dira. Diskoteka boroan kokatuko delako. Ingurumenaren auziarekin kezkatuta dagoen jendea ere zuen bezeroa izan daiteke, eguzki-panelak jartzean haren ezinegona barneratzen baituzue.